


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**UPV/EHUko IRAUNKORTASUNAREN ARLOKO
BERRIKUNTZARAKO LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA
(2014)**

SARRERA

Ezagutzaren gizartea ekonomia iraunkorrerantz bideratu behar da eta honek kontutan hartu behar ditu egoera ekonomikoa eta ongizate soziala eta ingurumenarena. Balio berriak sartu behar dira eredu ekonomikoetan, gizarte-antolaketan eta jarreretan, funtsezko arrazoi gisa ekitatea nagusitzeko. Unibertsitateko Gizarte Erantzukizuna nagusi den printzipio eta balioen aldaketa-prozesu honetan unibertsitatearen ekarpena oso garrantzitsua da.

Ikuspuntu horretatik, UPV/EHUK, bere estatutuetan ezartzen den moduan, euskal gizartearen premiei erantzungo die, bai eta historiak eta aldaketa sozioekonomiko, politiko eta kulturalak ekarritakoei ere. Era berean, ekonomia, gizarte eta ingurumenaren iraunkortasunerako irizpideei jarraituta eramango ditu aurrera eguneroko zereginak.

Estatutuetan ezartzen da, baita ere, UPV/EHUko irakaskuntzak ikaslearen heziketa osoa izango duela kontuan: espiritu kritikoa bultzatuko du, bake kulturaren eta bizikidetzaren oinarritutako balioak indartuko ditu eta gizarteratzea sustatuko du, guztia iraunkortasun eta gizarte erantzukizun irizpideak oinarri hartuta eta, betiere, oinarritzko eskubideak errespetatuta eta gizonen eta emakumeen berdintasunaren errespetuari arreta berezia eskainiz.

Bestalde, UPV/EHUK konpromisoa hartzen du 2012-2017ko Plan Estrategikoaren bitartez, iraunkortasunerako, berdintasunerako eta garapenerako hezkuntza sustatzeko unibertsitate curriculumean txertatuz prestakuntza- eta ikerketa-aldietan.

Ikuspuntu horretan sortzen da laguntza deialdi hau. Laguntza horien bitartez, hainbat jarduketa sustatu nahi dira, UPV/EHU eragile aktibo gisa azaltzeko, giza garapen iraunkor bat lortze aldera. Ez da gure asmoa hezkuntza ikuspegia ingurumenari buruzko ezagutzak transmititzera mugatzea, iraunkortasunari begira pertsonen gaitasuna aldatzea da xedea hezkuntza aldaketa eraldatzaile bat lortzeko.

Iraunkortasunaren aldeko hezkuntza pertsona motibatzaile eta konprometituetan zentratzen da, zehazki, etorkizun hobea sortzen lagundu eta ahalegintzen direnak tituludunek etorkizun alternatibo bat lortzeko beharrezkoak diren gaitasunak bereganatu ditzaten.

Xede horretara bideratuko ditu 12.000 € guztira, dagokion aurrekontu-kredituaren arabera, hain zuzen Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako Programa Kontratuaren baitan.

Horrela, UPV/EHUko ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak erabaki du jarraian zehazten diren diru-laguntzak emateko deialdia argitaratzea.

UPV/EHUko iraunkortasunaren arloko berrikuntzako proiektuak ikerketaren bidez (Campusa laborategi gisa).

1. oinarria. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da esperientziak sortzea iraunkortasunaren arloan eta ezagutza hori unibertsitatearen eskura jartzea, irtenbide alternatiboak bilatzera bideratuta dagoen iraunkortasunaren zeharkako bokazioa bera erabiliz.

2. oinarria. LAGUNTZEN XEDEA

Laguntza horien bidez sustatu egin nahi dira Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean iraunkortasunaren kultura bultzatzen duten proiektuak, curriculumean edo kudeaketan aldaketak planteatu eta Unibertsitatean bertan zuzenean aplikatuko diren berrikuntza proiektuak diseinatzeko eta garatzeko laguntzak emanez. Proiektu horiek 2014ko ekainaren eta 2015eko maiatzaren 31 bitartean gauzatuko dira.

3. oinarria. LAGUNTZEN XEDEAK

Deialdi honen helburuak hauek dira:

3.1. Laguntzak erabiliko dira UPV/EHUko iraunkortasunaren arloko berrikuntza-proiektuek sortutako gastuak finantzatzeko.

3.2. Planifikatutako jarduerak gehienez 6 hilabete iraungo dituzte, ematen diren datatik kontatzen hasita.

4. oinarria. TALDE ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK

Lan-taldeak unibertsitateko langileek osatuko dituzte (irakasleak eta ikertzaileak edota administrazio eta zerbitzuetako langileak). Ikasleek ere parte hartu ahal dute taldeetan, baldin eta proiektua garatzeko interesgarritzat jotzen bada. Langileek, 4.1 atalean jaso bezala, UPV/EHUko enpleguaren harreman-moten betebeharrak bat bete behar dute, eta 4.2. atalean jasotako taldeak osatzeko baldintzak ere bai.

4.1. Enpleguaren harreman-motak UPV/EHUrekin:

4.1.1. UPV/EHUko kontratatutako edo UPV/EHUrekin estatutu bidez modu iraunkorrean lotutako langileek egin beharko dute eskaera.

4.1.2. Aldi baterako langileek (ordezkapenak, liberazioak, etab.), horien iraupena bada gutxienez eskaeran proposatutako ikerketa-jardueraren iraupenaren %70.

4.2. Lan-taldeak osatzeko baldintzak

4.2.1. UPV/EHUrekin kontratu-harreman iraunkorra eta arduraldi osoa duten bi pertsona izango ditu taldeak gutxienez, eta horietako bat gutxienez doktorea izango da.

4.2.2. Lan-taldeko inork ezingo du parte hartu aldi berean modalitate honetako eskaera batean baino gehiagotan.

5. oinarria. ERAKUNDE-AFILIAZIOA

5.1. Berrikuntza-proiektutik lortutako emaitza guztietan, izan argitalpenak, patenteak, prototipoak edo baliagarritasun-modeloak, eta sortutako ezagutza zabaltzeko eta ustiatzeko ekimen guztietan (parte hartutako ponentzietan, hitzaldietan, biltzarretan edo ekitaldietan) beti azaldu beharko da UPV/EHUrekiko erakunde-afiliazioa eta identitate bisual korporatiboa, Unibertsitateak ezarritako baldintzetan.

5.2. Parte hartzaileak lotuta dauden erakundeak aitortzeaz gainera, esker onen eta aitortpenen atalean aipatu beharko dute Eusko Jaurlaritzak proiektua aurrera eramatea ahalbidetu duen finantzaketa eman duela kontratu-programaren bidez.

6. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

6.1. Eskatutako diru-laguntzak hau hartu ahal izango du baitan:

- a. Material suntsikorra. Betiere, behar bezala justifikatuta badago eta beharrezkoa bada proposatutako jardueretan.
- b. Bidaiak eta dietak. Eskaeran proposatutako jarduerak garatzeko egingo dira edo, bestela, biltzar garrantzitsuetan ikerketaren emaitzak zabaltzeko.
- c. Beste gastu batzuk. Aurreko partidetan aurreikusita ez dauden kontzeptuak izango dira beti, eta behar bezala justifikatuta egon beharko dute (proiektuarekin lotutako bilerak, mintegiak edo tailerrak).
- d. Salbuespenezko kasuetan, ekipamendu txiki bat eskatu ahal izango da, baina ezin izango du 2.500 euro baino gehiago balio. Ez da aurreikusten ekipamendu informatiko arrunta erostea, hala nola ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, inprimagailuak, etab.

6.2. Ekipamendu zientifikoaren erabileratik eratorritako gastu guztiak material suntsikorren atalean jaso beharko dira.

6.3. Bidaien eta dieten atalean jasotako zenbatekoek, gehienez ere lau asteko egonaldi laburrak barne, zuzenean lotuta egon beharko dute eskaeran aipatutako helburuak betetzearekin, eta behar bezala justifikatuta eta kuantifikatuta egon beharko dute. Planifikatutako jardueren garapenak landa-lana eskatzen badu (inkestak, elkarrizketak, lagin-hartzeak, etab.), lekualdaketen kostua ere bidaien eta dieten atalean jaso beharko da. Era berean, hautagarriak izango dira biltzarretan parte hartzetik eratorritako bidaia-gastuak eta horietan izena emateko kuoten ordainketak.

6.4. Beste gastu batzuen artean sar daitezke UPV/EHUko Zerbitzu Zentralek egindako mantentze-lanen kontratuetan aurreikusten ez diren ekipamenduak konpontzeko eta zaintzeko gastuak, baita UPV/EHUn lan egiteko istripu-estaldurarik ez duten jardueretara atxikitako langileentzako aseguru-estalduraren gastuak ere.

6.5. Gehienez 2.500 euroko diru-laguntza eskatu ahal izango da.

7. oinarria. ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Eskaerak ondoren agertzen diren irizpideen arabera ebaluatuko dira; horietako guztietan lortu

beharko dira puntuak.

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
1.- Proiektuen emaitzen aplikagarritasuna UPV/EHU deialdi honetako xedea kontuan hartuta, balioetsiz proiektuak irakaskuntzan eta ikaskuntzan curriculumerako emaitza berriekin izango duen inpaktua.	% 35
2.- 2012-2017ko UPV/EHUko Plan Estrategikoan ezarritako ildoekiko lerrokatzea (V. Ardatza. Gizarte Konpromisoa), erlazionatuz garapenaren nondik norakoak eta proiektuaren gauzatzea eta unibertsitateko kideen eta interesatuta dauden beste aldean (gizartea/komunitatea) parte hartzeko sustapena.	% 5
3.- Metodologiaren egokitasuna, azterlanaren diseinua, lan egitasmoa eta eskatutako aurrekontua proposatutako jardueraren helburuekin lotuta.	% 10
4.- Proiektua sartzea edo berorrek eragin lezakeen inpaktua (zuzena edo zeharkakoa) curriculumean edota UPV/EHUko kudeaketan (positiboki baloratuko da unibertsitateko kideen parte hartzea, sentsibilizazio hutsari ez dagokionean).	% 35
5.- Lan-taldean parte hartzen duten langileen aldez aurreko esperientzia eta inplikazioa ikerketaren xede den arloan.	% 5
6.- Diziplina artekotasuna (proiektuak berak edo haren emaitzek diziplina arteko lana suspertzen dute).	% 10

LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA OROKORRA

8. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdia irekita egongo da 2014ko uztailaren 30era arte, egun hori barne.

9. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

9.1. Eskaera deialdi honetako eranskinean proposatzen den eredia jarraituz aurkeztuko da, eta eskaeran agertzen diren datu guztiak bete behar dira.

9.2 Proiektuaren arduradunak egin beharko du eskaera eta parte hartzen duen Sailaren/Institutuaren Kontseiluak oniritzia eman beharko dio.

10. oinarria. ESKAERAK FORMALIZATZEA

10.1. Eskaerak UPV/EHUko Erregistro Orokorrean (Leioan), campusetako edo ikastegietako erregistroetan aurkeztuko dira, **UPV/EHko Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordeari zuzenduta (Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria, Errektoregoa, 2. solairua. Leioa)**. Eskaerak HAAJAPE legearen 38.4 oinarrian aurreikusitako

edozein modutan ere aurkeztu ahal izango dira.

11. oinarria. LAGUNTZAK KUDEATZEKO ORGANOA

Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzari dagozkio, Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritzaren bitartez, eta zehazki Iraunkortasun unitatearen bitartez, deialdi honetan aurreikusitako laguntzen kudeaketa-lanak egitea.

12. oinarria. ESKAERAK IZAPIDETZEA ETA EBALUATZEA

12.1. 10. oinarrian aipatutako eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, 10 egun izango dira akatsak konpontzeko, egoera hori jakinarazi zaienentzat; halaber, jakinaraziko da baztertu egingo direla akatsak konpontzen ez dituztenen eskaerak.

12.2. Eskaerako akatsak konpontzeko 10 eguneko epea igaro ondoren, eskaerak ebaluatzeko osatutako Ebaluazio Batzordea bilduko da. Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordea izango da Batzordearen burua (Gizarte Erantzukizuneko zuzendarian eskuordetu ahal izango du), Iraunkortasun Unitateko arduradun teknikoa izango da idazkaria eta Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordeak izendatutako batzordekide bat izango da batzordean; azken horrek esperientzia izango du ikerketan eta ezin izango du parte hartu deialdi honetan.

12.3. Batzordeak aztertuko ditu eskaerak, eta, ezarritako irizpideen eta betebeharren arabera, puntuazio-ordenaren arabera ordenatuko ditu, laguntzaren banaketa proposatuz, eta, hala badagokio, baztertutako eskaeren zerrenda egingo du. Esleipenaren ebazpena bidaliko dio Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordeari. Batzordeak zehaztuko du proiektu bakoitzerako laguntzaren zenbatekoa, eta, hala badagokio, laguntza aplikatu daitekeen gastu-motak mugatu ahal izango ditu, proiektuan aurkeztutakoen artean.

12.4. Ebaluazio-prozesuan ikusten bada proiektuetan aldaketak sartuz gero proiektu hauek programaren helburuetara hobeto egokitu ahal direla, eskatzaileei iradoki ahal izango zaie proiektuetan aldaketak hoiiek sartzeko. Ebaluazio-prozesuan proiektuaren arduradunarekin elkartzea eskatu ahal izango da, eskaeraren azalpenak eta xehetasun osagarriak biltzeko.

12.5. Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordeak aginduko du Batzordeak hautatutako proiektuen zerrenda argitaratzeko, hilabeteko epean, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita. Iraunkortasun Unitateak jakinaraziko die parte-hartzaileei deialdiaren emaitza, baita emandako zenbatekoa ere. Era berean, emaitzak argitara emango dira Gizarte Erantzukizuneko web orriaren bidez.

12.6. Ebazpenari berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio jakinarazpen pertsonala egiten den egunaren biharamunetik hilabeteko epean eta ebazpena egin duen organo beraren aurrean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 116. eta 117. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrita. Bestela, baina ez aldi berean,

administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango da dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, argitaratzen den egunaren biharamunetik bi hilabeteko epean.

12.7 Diru-laguntzaren pertsona esleipendunek diru-laguntza onartzeak zera dakar, deialdi honetan ezarritakora lotzea eta bertan adierazitako baldintzak betetzea.

12.8 Ikerketa taldearen jardueren ondorioz jabetza intelektual edo industrialaren edozein tituluren bidez helburu babesgarriak lortuko balira, EHUKo Jabetza Intelektual eta Industrialaren Erregimenari buruzko Arautegian jasotakoa aplikatuko da.

12.9 Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak ez dira bateragarriak izango helburu berekin kontzeptu berdinak finantzatzen duten beste edozein laguntza edo diru kopuruekin

13. oinarria. ORDAINKETA

13.1. Proiektua edo ekintza hasi baino lehen, konpromiso bat sinatuko du diru-laguntza jasoko duen pertsonak, eta konpromisoa hartuko du proiektua gauzatzeko ezarritako epean.

13.2. Konpromisoa sinatu ondoren, esleitutako laguntzaren % 100 emango da.

13.3. Deialdi honen diru-hornidura laguntza eta dirulaguntzen IV. Kapituluko aurrekontuan dago. Horregatik, proiektu bakoitzari esleituko zaion diru kopurua eskaera egiten duenari edo proiektu arduradunari ordainduko zaio. Proiektua bukatzen denean eta betiere 2015eko ekaina baino lehen, egindako gastuen jatorrizko fakturak eta hauek azaltzeko memoria aurkeztuko da.

14. oinarria. JARRAIPENA ETA JUSTIFIKAZIOA

14.1. UPV/EHUren Iraunkortasun Unitateak sistema bat ezarriko du proiektuen arduradunekin aldizka harremanetan jartzeko, proiektuen jarraipenean eta ebaluazioan laguntzeko.

14.2. Eskatzaileek UPV/EHUren Iraunkortasun Unitateari jakinarazi behar diote proiektua amaitu dutela eta amaitzen dutenetik bi hilabete igaro baino lehen aurkeztu beharko dituzte amaierako txosten bat eta ikerketa-proiektuan sortutako material guztiak. Gainera, egindako gastuak justifikatu beharko dituzte jatorrizko fakturak aurkeztuta; azken horiek, zigilatatu ondoren, eskatzailei itzuli ahal izango zaizkie.

14.3. Amaierako txostenean agertuko dira proiektuaren emaitzak, eta, halaber, lan-egitasmo baten proposamena egingo da, UPV/EHURI bide emateko hori abian jartzeko aukera.

14.4. UPV/EHUren Iraunkortasun Unitateak eskatu ahal izango du diru-laguntza honen hartzaileak parte hartzeko informazio- edo sentiberatze-saioetan; horietan aurkeztuko da sortutako dokumentazioa eta ikus-entzunezko material grafikoa. UPV/EHUK material hori erabili ahal izango du jarduerak zabaltzeko dokumentuak prestatzeko, sentiberatze-ekintzak eta -kanpainak egiteko, erakusketak antolatzeke eta urteko jardueren memorian sartzeko.

14.5. Deialdi honen esparruan, eskatutako jardueretan sortutako dokumentazio guztian argi utzi beharko da berau gauzatzeko ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan dela.

15. oinarria. Diru-laguntzak baliogabetzea

15.1. Jarduerak egin aurretik edo egiten ari direla edukiari, gauzatze-egutegiari edo aurrekontuari buruzko zehazki aldaketa UPV/EHUren Iraunkortasun Unitateari (iraunkortasuna@ehu.es) jakinarazi beharko zaio, nahikoa aurrerapenarekin dagokion baimena emateko. Nolanahi ere, proiektuaren aurrekontuari, xede biztanleriari edo emaitzei eta helburuei dagokien erabateko aldaketa izan dezaketen proiektuek behar bezala justifikatuta egon beharko dute eta 12. Oinarrian zehazturiko Ebaluazio Batzordeak onartu beharko ditu. Justifikaziorik ez izatea edo justifikazioa nahikoa ez bada eta desegokia bada, arrazoitutako kausa izango da emandako diru-laguntza osoa baliogabetzeko eta itzultzeko.

15.2. Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak, Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritzak arrazoitutako proposamenez, emandako laguntza osoa edo haren zati bat baliogabetu ahal izango du, ezarritako baldintzak errespetatzen ez badira edo proiektuen edukia nabarmen aldatzen bada, eta behin-behineko edo funtsezko aldaketak alde aurretik jakinarazi eta baimendu ez badira.

15.3. Deialdi honetako oinarrietan aurreikusi gabekoetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren Printzipio Arautzaileen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 22ko 1/1997 Lege Dekretua aplikatuko da.

Ebazpen honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da argitaratzen den egunaren biharamunetik hilabeteko epean (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 116. eta 117. artikulua), edo, bestela, baina ez aldi berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, argitaratzen den egunaren biharamunetik bi hilabeteko epean.

Leioan, 2014ko ekainaren 20an

Maite Zelaia Garagarza

Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordea

ERANSKINA

**UPV/EHUko IRAUNKORTASUNAREN ARLOKO BERRIKUNTZARAKO PROIEKTUAK. LAGUNTZA
ESKARIA 2014**

PROIEKTUAREN ARDURADUNAREN DATUAK	
Deiturak:	Izena:
Saila:	
Ikastegia/Fakultatea:	
Harremanetarako	E-mail:

PROIEKTUA	
Urtea:	
Kodea:	
UNESCO diziplina:	
Zientzien arloa:	
Jardueraren sektorea:	
Iraupena (hilabetetan):	
Izenburua:	

AURREKONTUA	
	GUZTIRA
MATERIAL HIGIEZINA	
BIDAIAK ETA DIETAK	
BESTELAKO GASTUAK	
HORNIKUNTZA TXIKIA	
GUZTIRA	

Proiektuak, aurrekontuaren arabera, bere baitan biltzen dituen ekintzen xehetasunak:	

SAILEKO KONTSEILUAREN ONTZAT EMAN IZANA:

TALDE ESKATZAILEA

Behean sinatu duten pertsonak honakoa adierazten dute:

- *Eskabide honetan jasotako datuen egiaztasunaren erantzukizuna hartzen dute.*
- *Ez dute ezelako murrizpen edo bateraezintasunik proiektu honetan jardun eta berori burutzeko.*
- *Eskaera honetan zehazten diren zereginak burutzeko konpromisoa hartzen dute.*

Zk.	Izen-deiturak	NAN	Saila	Parte hartze mota	Persona mota	Arduraldi a ordutan	Sinadura

TXOSTEN TEKNIKOA

PROIEKTUA	
IZENBURUA	
HITZ GAKOAK	

LABURPENA

(motza behar du izan eta ez da 15 lerrotatik gora joango, eskariaren alderdi esanguratsuenak eta proposamenak azalduz)

**METODOLOGIA ETA GARATZEKO PROPOSAMENARI DAGOZKION JARDUEREN
DESKRIBAPENA**

Zehatz-mehatz adierazi eta justifikatu behar da lan-metodologia eta plana eta ondo azaldu behar da zereginen kronograma, lortu beharreko mugarri nagusiak eta aldian-aldian aurkeztu beharrekoak (gehienez 2 orrialde).

LAN PLANA: JARDUERAK ETA JARDUERA BAKOITZAREN PERTSONA ARDURADUNA

Jarduerak/Egin beharrekoak	PERTSONAK

PROIEKTUEN EMAITZEN APLIKAGARRITASUNA UPV/EHUn deialdi honetako xedea kontuan hartuta. Proiektuaren inpaktua irakaskuntzan eta ikaskuntzan. Curriculumerako emaitzak.

Hemen azaldu behar da nola txertatu ahal izango diren ikerketa proiektuaren emaitzak UPV/EHUren beraren kudeaketan, ikerketan, irakaskuntzan, transferentzian... (gehienez orrialde 1)

**2012-2017KO UPV/EHUKO PLAN ESTRATEGIKOAN EZARRITAKO ILDOEKI
LERROKATZEA. Garapenaren nondik norakoak eta proiektuaren gauzatzea eta
unibertsitateko kideen eta interesatuta dauden beste aldeen (gizartea/komunitatea) parte
hartzeko sustapena.**

PROIEKTUAREN EMAITZAK SARTZEA EDO HORIEK ERAGIN LEZAKETEN INPAKTUA UPV/EHUKO KUDEAKETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDE (positiboki baloratuko da unibertsitateko kideen parte hartzea, sentsibilizazio hutsari ez dagokionean).

LAN TALDEAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN ALDEZ AURREKO ESPERIENTZIA

Deskribatu labur, proiektuaren esparruan, lan-taldean parte hartzen duen pertsona bakoitzaren esperientzia.

BESTELAKO ALDERDIAK

GENERO ETA AUKERA-BERDINTASUNAREN SUSTAPENA

Adierazi, labur, proiektuan zeintzuk ekintza egingo diren genero-berdintasuna eta aukera-berdintasuna bultzatzeko. Proiektuaren helburua genero eta aukera-berdintasunaren inguruko gaiak aztertzea bada, aurkeztu alderdi horiei heltzeko baliatuko den modua.

DESKRIBATU NAHI DIREN BESTELAKO ALDERDIAK